| PASAIAKO UDALA<br>HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SUSTAPENA | | |
|---|---|---|
| | **Espediente zk. /** N.º expediente: **2023WDIR0012** | |
| | **Sarrera-erreg. /** Reg. de entrada: | - 000000 |
| | **Titularra** / Titular: | PASAIAKO UDALA |
| | **Ordezkaria** / Representante: | |
| | **Gaia** / Asunto: 2023ko Gazte elkarteentzako urteko ekintza eta kanpamenduetarako dirulaguntzak. | |

## ALKATE EBAZPENA

Pasaiako udalak dirulaguntzak emateko indarrean duen araudia kontuan izanda.

Haur, nerabe eta gazte teknikariak 2023ko irailaren 7ko ebazpen – txosten proposamenean oinarrituta.

Eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua jarraiki,

## EBAZTEN DUT

**LEHENA**.- Onartzea Pasaiako irabazteko asmorik gabeko elkarte eta taldeei diru-laguntza, haurrekin, gazteekin eta aisialdiarekin lotutako programak, jarduerak edota kanpamenduak eta udalekuak finantzatzeko arloko diru-laguntzak lehia-prozeduraren bidez emateko deialdia, ebazpen honen eranskinean jasotako testuaren arabera.

**BIGARRENA**.- Kontu-hartzailetzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari (DDBN) beharrezko dokumentazioa helarazi dezala agintzea, deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

## RESOLUCIÓN DE ALCALDIA

Vista la la normativa del Ayuntamiento de Pasaia en materia de concesión de subvenciones.

Con base en el informe-propuesta de resolución de la técnico de infancia, adolescencia y juventud de 7 de septiembre de 2023.

Y de conformidad con lo establecido en el artículo 23 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones,

## RESUELVO

**PRIMERO.-** Aprobar la convocatoria para la concesión de subvenciones por procedimiento de concurrencia competitiva en materia de Subvención a asociaciones y grupos de Pasaia sin ánimo de lucro, para financiar actividades, programas y/o campamentos y colonias relacionados con la infancia, juventud y tiempo libre, con el texto que figura en el anexo de la presente resolución.

**SEGUNDO.-** Ordenar que el departamento de intervención suministre a la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS) la documentación necesaria para que se proceda a la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Guipúzcoa.

ESKU5ddf1402-2c9a-4e1d-a45b-3d8463d60659

Pasaian, sinadura elektronikoaren datan / En Pasaia, a fecha de firma electrónica

**Alkatea** / El alcalde

ESKU5ddf1402-2c9a-4e1d-a45b-3d8463d60659

ESKU5ddf1402-2c9a-4e1d-a45b-3d8463d60659

## 1. Oinarri arautzaileak

Diru-laguntza hauek emateko oinarri arautzaileak hemen jasota daude:

http://www.pasaia.eus/documents/90521/229042/Normativa+Subvenciones/9608370e-37da-4ff2-ab20-98a26364297e

Diru-laguntza hauek Pasaiako Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoan jasota daude, 3. kapituluan, 3.2 haurtzaroa, nerabezaroa eta gazteria sustatzeko arloko dirulaguntzak atalean (2023ko martxoaren 23ko GAO).

## 1. Bases Reguladoras

Las bases reguladoras de la concesión de estas subvenciones están contenidas en la:

http://www.pasaia.eus/documents/90521/229042/Normativa+Subvenciones/9608370e-37da-4ff2-ab20-98a26364297e

Estas subvenciones están recogidas en el Plan estratégico de subvenciones del ayuntamiento de Pasaia, en el capítulo 3, 3.2 dentro de las subvenciones en materia de fomento de la infancia, adolescencia y juventud (BOG 23 de marzo de 2023).

## 2. Emateko prozedura

Diru-laguntza hauek norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dira, hau da: aurkeztutako eskaerak alderatuko dira; eskaeren artean lehentasunak ezarriko dira, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera; eta hurrengo puntuan ezarritako muga kontuan izanik, irizpide horien arabera baloraziorik onena lortu dutenei esleituko zaizkie diru-laguntzak.

## 2. Procedimiento de concesión

El procedimiento para la concesión de estas subvenciones será en régimen de concurrencia competitiva, mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una relación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración establecidos en esta convocatoria, adjudicando, con el límite fijado en el punto siguiente, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de los citados criterios.

## 3. Aurrekontu-kredituak

Diru-laguntza ondoren zehazten diren aurrekontu-kredituei egotziko zaie; eta diru-laguntzen gehienezko zenbatekoak honako hauek dira:

064810123110 - 33627 €

064810223110 - 11209 €

Guztira – 44.836 €

## 3. Créditos presupuestarios

Los créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y la cuantía total máxima de las subvenciones convocadas son las siguientes:

064810123110 - 33627 €

064810223110 - 11209 €

Total – 44.836 €

## 4. Diru-laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua

Haurren, gazteen eta aisialdiaren arloko diru-laguntzen araudiaren helburuak honako hauek

## 4. Objeto, condiciones y finalidad de la subvención

Las finalidades de la normativa de subvenciones en materia de infancia, juventud

ESKU5ddf1402-2c9a-4e1d-a45b-3d8463d60659

dira:

- Laguntza ekonomikoa ematea Pasaiako irabazi asmorik gabeko aisialdi-taldeei eta gazte-elkarteei, Pasaiako udalerrian antolatzen diren aisialdiko, denbora libreko eta gizarte eta hezkuntzako jardueretarako.

- Laguntza ekonomikoa ematea kanpaleku eta udalekuak antolatzen dituzten aisialdi-taldeei; jarduera horien zenbatekoa dela-eta, berariazko diru-laguntza lerroa behar baitute.

**5. Eskaera egin duten aisialdi-taldeek eta gazte-elkarteek bete beharreko baldintzak**

- Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.
- Zerga betebeharretan egunean egotea.
- Elkarteek Pasaiako Udaleko Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda egon behar dute; edo beren egoitza soziala udalerri honetan ez badute, beste erregistro publikoren batean. Azken kasu horietan, jarduerak Pasaian egitea ezinbestekoa izango da dirulaguntzak jaso ahal izateko.
- Pasaiako Udaleko diru-laguntzen arautegian jasotako hizkuntza baldintzak bete beharko dituzte.
- Onuradunek helburu bererako edo ohiko jardueretarako edozein administrazio edo erakunde pribatu edo publikotatik dirulaguntzarik jasoko balute, dirulaguntza ematen dien sailari jakinarazi beharko liokete.

y tiempo libre son las siguientes:

- Ayudar económicamente a los grupos de tiempo libre y las asociaciones de jóvenes sin ánimo de lucro de Pasaia, para el fomento de las actividades de ocio, tiempo libre y socio-educativas que organizan en el municipio de Pasaia.
- Ayudar económicamente a los grupos de tiempo libre que organizan campamentos y colonias y que, por su importe requieren de una línea de subvención específica.

**5. Requisitos de los grupos de tiempo libre y asociaciones de jóvenes solicitantes**

- Estar al corriente en las obligaciones de la Seguridad Social.
- Estar al corriente en las obligaciones tributarias.
- Las asociaciones deberán estar inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones del Ayuntamiento de Pasaia o, en el caso de que no tengan su domicilio social en este municipio, en cualquier otro registro público. En este último caso las asociaciones deberán realizar su actividad en Pasaia para poder acceder a las subvenciones.
- Cumplir las condiciones referidas al idioma recogidas en la normativa de subvenciones del Ayto. de Pasaia.
- Comunicar al Departamento concedente de la subvención la obtención de otras ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualquier administración o entidad, tanto pública como privada, así como las que financien su funcionamiento

ESKU5ddf1402-2c9a-4e1d-a45b-3d8463d60659

- Diruz lagundutako jardueraren publizitatean Pasaiako Udalaren laguntza adierazi behar dute.
- Diru-laguntzaren kontrol eta egiaztapenerako, Udal Kontu-hartzailetza eta dagokion udal sailaren mende egongo dira, diru-laguntza motaren arabera.
- Udalak kontrol eta egiaztapenerako eskatzen dien informazioa ematea.
- Gutxieneko kontabilitatea eraman behar dute, eta gastu eta gainerakoen egiaztagiriak gorde.

ordinario.

- Hacer constar la colaboración del Ayuntamiento de Pasaia en toda publicidad que se realice de la actividad subvencionada.
- Someterse al control y actuaciones de comprobación por parte de la Intervención municipal y el correspondiente Departamento o Área municipal según la naturaleza de la subvención.
- Aportar la información que el Ayuntamiento les requiera para su labor de control y comprobación.
- Llevar una mínima contabilidad y conservar los justificantes de gastos y demás justificación contable.

**6. Prozedura bideratzeko eta ebazteko organo eskuduna**

Espedientea bideratzeko eskumena haur, nerabe eta gazteen sustapen arloa da.

Espedientea bideratzean txosten hauek jasoko dira: dagokion informazio-batzordearen txostena eta arloko teknikari eskudunaren txostena, ebaluazioa edo ebazpen-proposamena.

Ebazpena emateko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra da.

**6. Órgano competente para la instrucción y resolución**

El órgano competente para la instrucción del expediente es el departamento de promoción de la infancia, adolescencia y juventud.

En la instrucción del expediente se incluirá el informe de la respectiva Comisión Informativa y el informe, evaluación o propuesta de resolución del técnico del área.

El órgano competente para resolver será la Junta de Gobierno Local.

**7. Eskaerak aurkezteko epea eta dokumentazioa**

Eskaerak dagokion sarrera-erregistroa emanez egingo dira, Udalari egiten zaizkion gainerako eskaerak bezala; eta horretarako, Udalak eskaerak egiteko eskura dituen bideetatik edozein erabil daiteke.

**7. Plazo de presentación de solicitudes y documentación**

Las solicitudes, al igual que cualquier solicitud que se dirija al Ayuntamiento, se realizarán mediante el registro de entrada correspondiente; y para ello, se podrá utilizar cualquiera de los canales disponibles para realizar solicitudes al Ayuntamiento.

ESKU5ddf1402-2c9a-4e1d-a45b-3d8463d60659

Pasaiako Udalak informazioa kontsultatu edo bildu ahal izango du, honako hauek egiaztatzeko, Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoari (NISAE) buruzko informazio-zerbitzuaren bidez:

El Ayuntamiento de Pasaia podrá consultar o recabar información para comprobar a través del Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones de Euskadi (NISAE):

a) Gipuzkoako Foru Aldundia - Zerga betebeharrak egunean izatea.

a) Diputación Foral de Gipuzkoa - Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias.

b) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - Gizarte Segurantzari ordaintzeko betebeharretan egunean egotea.

b) Tesoreria General de la Seguridad Social - Estar al corriente en las obligaciones de pago a la Seguridad Social.

Datu horiek ez direla kontsultatu edo bildu behar iritziz gero, izangaiak justifikatu beharko du zergatik dagoen horren aurka (Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamenduaren (EB)21.artikulua), arrazoiak emanez, eta datu horiek egiaztatzen dituen agiriak aurkeztu beharko ditu eskabide-orriarekin batera.

En caso de considerar que no se deben consultar o recabar estos datos, el/la solicitante deberá justificar motivadamente su oposición (art. 21 del Reglamento (U.E.) 2016/679 de Protección de Datos), adjuntando los documentos acreditativos de los mismos junto con la solicitud.

Eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

El plazo de presentación de las solicitudes será de 30 días naturales a partir del siguiente día de la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Guipúzcoa.

Eskari-orria (E043) honako agiri hauekin erregistratu behar da:

La instancia (E043) debe registrase junto con la siguiente documentación:

Derrigorrezkoa:

- Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan inskripzioa egin izanaren ziurtagiria, hala badagokio. Udalak ofizioz egiaztatuko du elkarte eskatzailea Elkarteen Udal Erregistroan inskribatua dagoen.
- Urtean zeharreko ohiko jardueraren memoria edota, hala badagokio, ezohiko jarduerarena, zeinetarako diru-laguntza eskatzen den.

Obligatoria:

- Certificado de estar inscrito en su caso en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco. La inscripción en el Registro Municipal de Asociaciones se comprobará de oficio por el Ayuntamiento.
- Memoria de la actividad anual habitual o en su caso de la actividad extraordinaria para la que se solicita la subvención.

ESKU5ddf1402-2c9a-4e1d-a45b-3d8463d60659

- Dirulaguntza eskatzen den kanpaleku eta/edo udalekuen memoria.
- Jardueramemoria, haiek egiteko aurreikusitako epea eta datak, metodologia, aurreikusitako hel-buruen deskribapena, zein biztanleria-esparruri zuzendua dagoen, etab...
- Sarreren (jatorria eta zenbatekoa) eta gastuen (kontzeptua eta zenbatekoa) aurrekontu zehatza.
- Jardueran aritu diren arduradunen, hezitzaileen edo begiraleen izen-abizenak, NAN edo egiaztagiria eta hezitzaile titulua edo baliokidea.
- Jardueran parte hartu duten adingabekoen zerrenda, honako datu hauekin: izena, abizenak eta jaiotze-data; diru-laguntza jasoko duen jardueran zenbat jendek parte hartu duen baloratzeko.
- Elkarteak duen antzinatasunaren egiaztagiria.
- Aurkeztutako balantze ekonomikoa justifikatzen duen faktura-zerrenda. Bi faktura-zerrenda bereiz aurkeztuko dira: bat urteko jarduerena, eta beste kanpaleku edo udalekuena.

## 8. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea

Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea 6 hilabetekoa da.

Gehienezko epea ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada, interesatuek ulertu ahal izango dute diru-laguntza emateko eskaera isiltasun administratiboz ezetsi dela.

- Memoria de los campamentos y/o colonias realizadas para la que se solicita la subvención.
- Memoria de actividades, plazo y fechas para su realización, metodología, descripción de los objetivos previstos, ámbito de población al que va dirigido, etc.
- Presupuesto detallado de ingresos (procedencia e importe) y gastos (concepto e importe).
- Nombre, apellidos y nº de DNI o documento acreditativo de las personas responsables, educadores/as o monitores/as de la actividad y titulación de monitor/a o equivalente.
- Relación de menores participantes con nombre, apellidos y fecha de nacimiento, de manera que permita valorar el alcance del colectivo al que se dirigen.
- Documento acreditativo de los años que tiene la asociación.
- Relación de facturas que justifiquen el balance económico presentado de manera diferenciada en relación a la actividad anual y en relación a la actividad de campamentos o colonias.

## 8. Plazo de resolución y notificación

El plazo de resolución y notificación será de 6 meses.

El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución legitima a los interesados para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión de la subvención.

ESKU5ddf1402-2c9a-4e1d-a45b-3d8463d60659

**9. Administrazio-bidearen amaiera**

Diru-laguntza ebazteko egintzak amaiera ematen dio administrazio-bideari.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatzen denarekin bat, akordio horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke Udal honetako Tokiko Gobernu Batzordeari, hilabeteko epean, jakinaraz-pena jasotzen denetik kontatzen hasita. Edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitalpena eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluaren arabera.

**9. Fin de la vía administrativa**

El acto de resolución de la subvención agota la vía administrativa.

De acuerdo con lo que disponen los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, contra dicho acuerdo podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno Local de este Ayuntamiento, en el término de un mes a contar desde el día siguiente de la publicación, o bien directamente recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastian, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación, de conformidad con el artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

**10. Eskaerak baloratzeko irizpideak.**

Dirulaguntzari dagokion zenbatekoa formula honen aplikazioaren emaitza izango da. Honek ez du gaindituko estali beharreko defizita. Defizita dagokion fakturak aurkeztuta justifikatuko da. Dirulaguntzaren zenbateko osoa banatzen ez bada, eta, beraz, soberakina geratzen bada, elkarteen artean banatuko da, betiere betetzeko defizita badago.

Z= (E/P) * p

Non:

E= Modalitateari esleitutako zenbateko ekonomikoa.
P= Eskatzaileek lortutako puntuazioen batura osoa.
p= Entitate eskatzaileak lortutako puntuazioa.

**10. Criterios de valoración de solicitudes.**

El cómputo correspondiente a la subvención será el resultado de la siguiente fórmula, sin que supere el déficit a cubrir justificado mediante las facturas correspondientes.
En caso de que no se llegue a repartir el cómputo total de la subvención, y por lo tanto, quede remanente, éste se repartirá entre las distintas asociaciones, siempre y cuando exista déficit por cubrir.

Z= (E/P) * p

Donde:

E= Cantidad asignada a la modalidad de subvención.
P= Puntuación total correspondiente a la totalidad de solicitantes.
p= Puntuación obtenida por la entidad solicitante.

ESKU5ddf1402-2c9a-4e1d-a45b-3d8463d60659

1. Erakunde eskatzaileari dagokionez: 25 puntu, gehienez.

- Elkartearen ibilbidea, jarraitasuna eta dedikazioa: **4 puntu arte**

  1-2 años -------- 0,5 puntu
  3-10 años -------- 1 puntu
  11-25 años ------- 2 puntu
  26-50 años ------- 3 puntu
  >50 años ------- 4 puntu
- Pasaiako ingururako beste eragile edo erakunde batzuekin batera egindako programak: **3 puntu arte.**
  - Gehienez ere 3 puntu, ekintza bakoitzeko bat.
- Lokalik ez edukitzea: **2 puntu arte**
  - Udalaren lokala badu --- 0 puntu.
  - Udalaren lokala beste talde batzuekin batera erabiltzen du --- puntu 1.
  - Lokala badu. Jabetzan edo alokairuan --- 2 puntu.
- Beste dirulaguntzarik ez jasotzea: **puntu 1.**
- Boluntarioek begirale izateko prestakuntza dute: gehienez ere **10 puntu.**
  - Boluntarioen % 100ek du begirale-prestakuntza… 10 puntu.
  - Boluntarioen % 10-99k du prestakuntza…. 9 puntu.
  - Boluntarioen % 80-89k du prestakuntza…. 8 puntu.
  - Boluntarioen % 70-79k du prestakuntza…. 7 puntu.

1. Respecto a la entidad solicitante: hasta 25 puntos

- Los años de funcionamiento continuado y dedicación: **hasta 4 puntos**

  1-2 años -------- 0,5 puntos
  3-10 años -------- 1 punto
  11-25 años ------- 2 puntos
  26-50 años ------- 3 puntos
  >50 años ------- 4 puntos
- Programas dirigidos al entorno de Pasaia desarrollados junto con otras instituciones o promotores: **hasta 3 puntos.**
  - Máximo 3 puntos, 1 por cada acción.
- No tener local: **hasta 2 puntos**
  - Tiene local del Ayuntamiento --- 0 puntos.
  - Comparte el local del ayuntamiento con otras asociaciones --- 1 punto.
  - Utilizan instalaciones que suponen un coste adicional --- 2 puntos.
- No percibir otras ayudas: **1 punto**.
- Los voluntarios tienen realizada la formación de monitor/a: **hasta 10 puntos**
  - 100% de los voluntarios tienen formación ……. 10 puntos.
  - 90-99% de los voluntarios tienen formación …… 9 puntos.
  - 80-89% de los voluntarios tienen formación …… 8 puntos.
  - 70-79% de los voluntarios tienen formación ……. 7 puntos.

ESKU5ddf1402-2c9a-4e1d-a45b-3d8463d60659

- Boluntarioen % 60-69k du prestakuntza…. 6 puntu.
- Boluntarioen % 50-59k du prestakuntza…. 5 puntu.
- Boluntarioen % 40-49k du prestakuntza…. 4 puntu.
- Boluntarioen % 30-39k du prestakuntza…. 3 puntu.
- Boluntarioen % 20-29k du prestakuntza…. 2 puntu.
- Boluntarioen % 10-19k du prestakuntza…. 1 puntu.
- Begiraleen % 1-9k du prestakuntza…. 0,5 puntu.
- Boluntario bakar batek ere ez du begirale-prestakuntzarik... 0 puntu.

- 60-69% de los voluntarios tienen formación ……. 6 puntos.
- 50-59% de los voluntarios tienen formación ……. 5 puntos.
- 40-49%de los voluntarios tienen formación ……. 4 puntos.
- 30-39% de los voluntarios tienen formación ……. 3 puntos.
- 20-29% de los voluntarios tienen formación ……. 2 puntos.
- 10-19% de los voluntarios tienen formación ……. 1 puntos.
- 1-9% de los voluntarios tienen formación ……. 0,5 puntos.
- Ninguno de los voluntarios tiene formación de monitor/a…...0 puntos.

- Aurrekontu eta defizitaren arteko proportzioa: **5 puntu arte.**
  Ondoko formula aplikatuko da: Aurrekontua - defizita / aurrekontua
  - 0-0,2 ------ 1 puntu
  - 0,2-0,4 --- 2 puntu
  - 0,4-0,6 --- 3 puntu
  - 0,6-0,8 --- 4 puntu
  - 0,8-0,9 --- 5 puntu

- Proporción entre presupuesto y déficit: **hasta 5 puntos.**
  Se aplicará la siguiente fórmula: Presupuesto – déficit / presupuesto
  - 0-0,2 ------ 1 puntos
  - 0,2-0,4 --- 2 puntos
  - 0,4-0,6 --- 3 puntos
  - 0,6-0,8 --- 4 puntos
  - 0,8-0,9 --- 5 puntos

<u>2. Jarduerari dagokionez: 75 puntu arte</u>

- Programaren kalitatea eta antolakuntza: **30 puntu arte**
  - Antolatutako edo proposatutako ekintzek helburu zehatzak dituzte eta helburuak lortzeko beharrezko diren baliabideak ezartzen dira. (20 puntu arte)
  - Ekintzen balorazioa egiten da eta hobetzeko ekintzak identifikatzen

<u>2. Respecto a la actividad: hasta 75 puntos</u>

- Calidad y organización del programa: **hasta 30 puntos**
  - Las acciones organizadas o campamentos y colonias propuestas tienen objetivos concretos y se establecen los recursos necesarios para alcanzarlos. (Hasta 20 puntos)
  - Se realiza la valoración de la actividad y se identifican las

ESKU5ddf1402-2c9a-4e1d-a45b-3d8463d60659

dira. (10 puntu arte)

- Egitasmo edo ekintzen helburuak Udalak dituen helburuekin bat datoz; hizkuntza normalizazioa, integrazioa eta berdintasuna: **25 puntu arte**.
    - Hizkuntza normalizazioa: parte-hartzaileek euskara erabiltzea bultzatzen da, egoeraren arabera behar diren estrategiak ezarriaz. (10 puntu arte)
    - Integrazioa eta bizikidetza: haur-nerabe-gazteen integrazioa eta bizikidetza bultzatzen da. (7,5 puntu arte)
    - Berdintasuna: parte-hartzaileen artean berdintasuna bultzatzen da, hizkuntza, mezuak e.a. zainduz. (7,5 puntu arte)
- Onuradun kopurua: 0,15 puntu parte-hartzaile bakoitzeko, **20 puntu arte.**

### 11. Jakinarazteko edo argitaratzeko bideak

Prozedura honetatik eratorritako jakinarazpenak, prozeduraren ebazpena barne, udal egoitza elektronikoan (www.pasaia.eus) argitaratuko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan ezarritakoarekin bat. Halaber, emandako diru-laguntzak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (DDBN) argitaratuko dira.

acciones de mejora. (Hasta 10 puntos)

- Los objetivos de las acciones o campamentos y colonias se ajustan a los del Ayuntamiento; normalización lingüística, integración, convivencia e igualdad: **hasta 25 puntos**
    - Normalización lingüística: se impulsa el uso del euskera por parte de los participantes, estableciendo las estrategias necesarias en función de la situación. (Hasta 10 puntos)
    - Integración-convivencia: se impulsa la integración y convivencia de niños-adolescentes jóvenes. (Hasta 7,5 puntos)
    - Igualdad: se promueve la igualdad entre los participantes, cuidando el lenguaje, los mensajes... (Hasta 7,5 puntos)
- Número de personas beneficiarias. 0,15 puntos por participante, **hasta 20 puntos.**

### 11. Medios de notificación o publicación

Las notificaciones que se deriven del presente procedimiento, incluida la publicación de la resolución del procedimiento, se practicarán en la sede electrónica municipal (www.pasaia.eus), de conformidad con lo establecido a estos efectos en el artículo 45.1. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Asimismo, las subvenciones concedidas se publicarán en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS).



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU5ddf1402-2c9a-4e1d-a45b-3d8463d60659**

*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410*

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410*